

**SANFERMINETAKO EKIPAJE-KONTSIGNAKO ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN
DITUEN ARAUA**

13. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. saileko 2. azpisailean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Ekipaje-kontsignako zerbitzua erabiltzen duten partikularrek ordaindu beharko dute prezio publiko hau.

3. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra fardela gordetzeko noiz utzi eta orduan sortzen da, halako eran non fardela ezin izanen baita berreskuratu sortutako zenbatekoa ordaindu gabe.

Tarifak

4. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

5. artikulua.- Prezio publikoak Udalak zerbitzuaren ustiapena enpresa bati esleitu eta horrek berak bilduko ditu.

6. artikulua.- Enpresa esleipendunak apuntatu beharko ditu, banan-banan eta taloitegi bidez, ekipaje-kontsignan egiten diren gordailu- eta kobratze-eragiketak, erabiltzaileei behar den ordezkagiria emanen zaielarik.

Gordailuen taloitegiko ondoak Alor eskudunean aurkeztuko dira kontratua bukatutakoan, kobratutakoaren egiaztagiri modura, bildutako dirua Udalaren Diruzaintzan sartu dela egiaztatzen duten agiriekin batera.

7. artikulua.- Enpresa esleipendunak gauzatu duen jardueraren gaineko txostena aurkeztu beharko du, kontratua amaitu eta 30 eguneko epean. Halaber, behin txostena onetsita, behar den faktura ere eman beharko du.

TARIFA-ERANSKINA

| | |
|----------------------|-----------|
| - Fardel eta eguneko | 4,60 euro |
|----------------------|-----------|